

A MAILA



2025

SORALUZEKO XL. IDAZLAN LEHIAKETA



SORALUZEKO
UDALA

BENETAKO IPUINA

A MAILA 1.saria LIBE ELORTZA UGALDE

Orain dela 2 urte, Leire izeneko neskato bat bere logelan zegoen, ez zekien zer egin, aspertuta zegoen. Bat-batean ipuin bat idaztea bururatu zitzaion, eta orduan idazten hasi zen:

Bazen behin, lagun kuadrilla bat mendira joan nahi zutenak. Egun batean, mendira joateko plana egin zuten. Hara heldu zirenean lagun batek ohar bat ikusi zuen:

-Lagunak, lagunak emen ohar bat dago!- oihukatu zuen.

-Zer ohar?- galdetu zuten besteek.

Irakurtzen hasi zenean konturatu zen oharrean "kontuz" bakarrik jartzen zuela. Denak harrituta geratu ziren. Batzuk beldurrez zeuden, beste batzuk pentsatzen zeuden eta besteek ez zela ezer izango esaten zuten. Bat-batean, gizon bat agertu zen. Ohar hori ez ukitzeko esan zuen.

-Nor zara? -galdetu zuen.

-Jei naiz.

Leirek ez zekien nola bukatu ipuina. Bere amak afaltzera joateko esan zion. Afaltzen zegoenean bere gurasoek esan zioten hurrengo egunean mendira joango zirela, Leire oso pozik jarri zen, asko gustatzen zaiolako mendira joatea. Afaltzen bukatu eta lotara joan zen.

Hurrengo egunean, mendian, kasualitatez, bere lagun batekin egin zuen topo, Norarekin. Besarkada estu bat eman eta jolasten hasi ziren. Bat batean Norari bururatu mendian bueltatxo bat egitea bururatu zitzaion. Basoan zeudela Leirek zerbait xuria ikusi zuen. Leirek bere ipuina gogoratu zuen, baina ezinezkoa zela pentsatu zuen. Nora hara urbildu zen. Hara urbildu zenean horri bat zela ikusi zuen, baina orrian zerbait jartzen zuen, ez zirudien oso luzea zeren eta letra bat bakarrik jartzen zuen. Orrian "S" letra jartzen zuen:

-E! Hemen "S" letra jartzen du!

Baina konturatu ziren beste orri pila bat zeudela. Bat batean, gizon bat agertu zen, esploratzailea zela esaten zuen eta Jeien izena zuela esan zuen. Leire pentsakor gelditu zen bere ipuinean ere pertsona bat agertu zen Jei izenekoa, oso arraroa zen. Norak molestatu egin genuela pentsatu zuen baina Jeienek ez zuela molestatu esan zuen. Norak dena kontatu zion: letrena, Leireren ipuinarena... Orri denak bildu zituzten eta bakoitzean letra bat zegoen.

-Puzzle bat da! - oihukatu zuen Leirek.

Letra bakoitzarekin esaldi bat egin behar zuten. Denak bildu zituztenean "Sorgin-etxe etorri" irakurri zuten.

-Badakit! -esan zuen Jeienek.

-Badago etxe bat non emakume bat bizi den, sorginduta dagoela esaten dute eta Sorgin-etxe deitzen diote.

-Eta hara joan behar dugu? -galdetu zuten Norak eta Leirek.

-Ba hori jartzen du, ezta? Ba, joan egin beharko gara.

Denak ados zeuden, baina lehenengo beraien gurasoei abisatu behar zieten. Gurasoengana joan zirenean, Leire konturatu zen bere aita ez zegoela eta non zegoen galdetu zuen. Egurra biltzera joan zela esan zuten.

Sorgin-etxera bidean, Jeienek esan zuen bide luzea zela. Hara heldu zirenean, etxeak oso zaharra zirudien.

-Sartuko gara? -galdetu zuten, eta denak batera sartu ziren.

Bat-batean, emakume bat agertu zen.

-Azkenean agertu zarete! - esan zuen ahots misteriotso batekin.- Eskerrik asko Xabier!

Hori entzun zutenean, harrituta gelditu ziren. Jeien sorginaren laguna zen! Eta gainera, ez zen Jeien deitzen!

-Zer nahi duzue gugandik?

-Ezer ez, baina hemen egongo zarete aste batez niri egindakoagatik-esan zuen sorginak.

-Guk ez dugu ezer egin!

-Ah, ez? Ba nik baietz uste dut!

Ustekabean, Norak bere amaren lepokoa ikusi zuen.

-Zu ez zara sorgina! - oihukatu zuen Norak.- Zu nire ama zara!

-Asmatu duzu! Ni zure ama naiz, eta Jeien Leireren aita da.

-Zeeeer? Esan zuten biek batera.

-Dena antolatuta genuen! Zuei jolas txiki bat egin nahi genizuen. Zure ipuina ikusi genuen eta bukaera aurkitzen lagundu nahi genuen. Eta orain goazen denok etxera, afaltzeko ordua da eta.

Leirek harrituta:

-Ah!! Orduan, horregatik nire aita ez zegoen zuekin, gurekin baizik!

DINOSAUROAK BIZIRIK

A MAILA

2.saria

EKI AZKORBEBEITIA
SORIA

Baziren behin 3 lagun, Jon, Martin eta Elene. Mendiz inguratuta dagoen herri txiki batean bizi ziren. Egun batean, oso aspertuta zeuden eta mendira joatea bururatu zitzaien. Bakoitza bere etxera joan zen beharrezko gauzen bila. Dena hartu ondoren, herriko plazan bildu ziren eta mendirako bidea hartu zuten.

Mendian bidegurutze batean okerreko bidea hartu zuten eta galdu egin ziren. Bat batean, txingorra hasi zen eta kobazulo batera sartu ziren. Bertan, ez zegoenez egiteko ezer, kobazuloaren bukaeraraino sartu ziren ea zerbait zegoen, orduan lurra hautsi eta zulo azpiraino jausi ziren. Esnatu zirenean lur azpian zeudela ohartu ziren, ingurua ezagutzera joan ziren baina bat batean zarata handi bat entzun zuten, pauso batzuk bezala. Orduan, ohartu ziren dinosauro bat zela oinez, eta hirurak asko beldurtu ziren eta korrika batean irten ziren.

-JON: Baina dinosauroak ez al dira jada hil?

-ELENE: Ba... ba... berez bai, jada desagertu egin dira.

-MARTIN: Baina ez dauka zentzurik ! Hemen bizirik daude eta.

-JON: A ze beldurra !

-MARTIN: Ba... bai! Gainera gu bakarrik gaude guraso eta anaia arreba gabe!

-ELENE: Bai arrazoi duzue baina ez pentsatu horretan, orain bizirauten saiatu behar gara.

Bi egun geroago...

-MARTIN: Gosez hiltzen ari naiz.

-ELENE: Eta zer uste duzu, gu ezetz edo zer eh!

-JON: Lasaitu zaitetze.

- ELENE: Eta nola nahi duzu lasaitzea! Gosez hiltzen ari gara eta!

-JON: Ba erraza, zerbait jaten.

- ELENE: Eta zer nahi duzu jatea hemen ez dago McDonald'sik ez ezer!

- JON: Eta nola nahi duzu hemen McDonald's bat egotea, ez al duzu ikusten hemen natura besterik ez dagoela. Bueno berdin da, ideia bat daukat.

- ELENE eta MARTIN: Ze ideia, ze ideia!

- JON: Ba egurra, haria eta harriak biltzea.

- MARTIN: Eta nondik aterako duzu haria?

- JON: Ba nondik aterako dut ba, zure jertsetik? Ba ez! Ez al dakizu dinosauro batzuk ilea dutela?

- MARTIN: Ba ez, ez nekien.
- ELENE: Eta nola kenduko diozu ilea dinosauro bati?
- JON: Ba lo dagoenean motxilan dudan labanarekin behar dugun ile guztia kenduko diot.
- MARTIN: Eta zer egingo duzu egurra, haria eta harriekin?
- JON: Ba hiru arku eta gezi batzuk zerbait ehizatzeke, adibidez, dodo bat. Goazen azkar, bakoitza gauza baten bila joango da, ni hari bila joango naiz, Martin zu harrien bila joango zara eta Elene zu egurraren bila joango zara.

Jonek zeukan lanik zailena, baina segituan topatu zuen dinosauro bat lo ziplo eta motxilan zeukan labanarekin behar zuen ile guztia kendu zion. Material guztia bildutakoan motxilak utzi zituzten lekuan elkartu ziren.

- ELENE: Hemen duzu behar duzun guztia.
- JON: Ba dodo bat ehizatuko dugu.
- MARTIN: Ez, dodo batek oso jateko gutxi dauka, mamut bat ehizatzea hobeto da.
- ELENE: Bai, mesedez, gosez hiltzen ari gara eta mamut batek asko du jateko.
- JON: Ondo da, arriskutsuagoa da baina lortuko dugu.
- MARTIN: Ba zeren zain gaude, goazen azkar geziak eta arkuak egitera!
- ELENE eta JON: Bai, goazen!

Geziak eta arkuak egitera joan ziren baina jada ahaztuta zuten dinosauroak ere bazeudela hor inguruan, ez zuten aintzat hartu zailagoa izango zela eta horrek ez zuen gauza onik ekarriko.

Lanean hasi aurretik bat batean Tiranosaurus Rex batek eraso zien, eta korrika batean irten ziren.

- MARTIN: Goazen azkar gotorleku bat bilatzera!
- JON eta ELENE: Bai, goazen!

Zuhaitz batekin konektatuta zegoen kobazulo batean sartu ziren, baina oraingoan ez zen lurra hautsi.

- ELENE: Baina ze leku da hau ze kobazulo polita!
- JON: Bai, polita da, baina goazen lanean hastera!

Arkuak eta geziak amaitu zituztenean ehiztatzera irten ziren.

- MARTIN: Ez dut inon mamutik ikusten.
- ELENE: Bai, hor eskuinean ikusten dut bat!
- MARTIN eta JON: Goazen, gurea da!

- MARTIN: Ba ez, ez nekien.
- ELENE: Eta nola kenduko diozu ilea dinosauro bati?
- JON: Ba lo dagoenean motxilan dudan labanarekin behar dugun ile guztia kenduko diot.
- MARTIN: Eta zer egingo duzu egurra, haria eta harriekin?
- JON: Ba hiru arku eta gezi batzuk zerbait ehizatzeke, adibidez, dodo bat. Goazen azkar, bakoitza gauza baten bila joango da, ni hari bila joango naiz, Martin zu harrien bila joango zara eta Elene zu egurraren bila joango zara.

Jonek zeukan lanik zailena, baina segituan topatu zuen dinosauro bat lo ziplo eta motxilan zeukan labanarekin behar zuen ile guztia kendu zion. Material guztia bildutakoan motxilak utzi zituzten lekuan elkartu ziren.

- ELENE: Hemen duzu behar duzun guztia.
- JON: Ba dodo bat ehizatuko dugu.
- MARTIN: Ez, dodo batek oso jateko gutxi dauka, mamut bat ehizatzea hobeto da.
- ELENE: Bai, mesedez, gosez hiltzen ari gara eta mamut batek asko du jateko.
- JON: Ondo da, arriskutsuagoa da baina lortuko dugu.
- MARTIN: Ba zeren zain gaude, goazen azkar geziak eta arkuak egitera!
- ELENE eta JON: Bai, goazen!

Geziak eta arkuak egitera joan ziren baina jada ahaztuta zuten dinosauroak ere bazeudela hor inguruan, ez zuten aintzat hartu zailagoa izango zela eta horrek ez zuen gauza onik ekarriko.

Lanean hasi aurretik bat batean Tiranosaurus Rex batek eraso zien, eta korrika batean irten ziren.

- MARTIN: Goazen azkar gotorleku bat bilatzera!
- JON eta ELENE: Bai, goazen!

Zuhaitz batekin konektatuta zegoen kobazulo batean sartu ziren, baina oraingoan ez zen lurra hautsi.

- ELENE: Baina ze leku da hau ze kobazulo polita!
- JON: Bai, polita da, baina goazen lanean hastera!

Arkuak eta geziak amaitu zituztenean ehiztatzera irten ziren.

- MARTIN: Ez dut inon mamutik ikusten.
- ELENE: Bai, hor eskuinean ikusten dut bat!
- MARTIN eta JON: Goazen, gurea da!

Mamuta ehizatzea lortu zuten eta izugarrizko barbakoa muntatu zuten.

-ELENE: A zer itxura duen haragiak, uste dut dena jango dugula.

Osorik jan zutenez mamuta, indarberritu ziren eta hobeto sentitzen ziren. Atsedena hartu ondoren, etxerako bidea topatzen hasi ziren. Halako batean Elenek izkina batera begiratu eta lurrazalera irteera bat topatu zuen. Hirurak bertatik irten eta bakoitza bere etxera joan zen. Uste zuten errieta jasoko zutela gurasoen partetik, baina oso arduratuta zeudenez, oso pozik jarri ziren umeak ikustean, eta besarkada handi batekin jaso zituzten emozionatuta.

Umeek ez zuten kontatu etxean bizi zuten abentura, pentsatu zutelako ez zietela sinistu behar. Baina berek badakite dinosauroak bizirik daudela.

Eta hala bazan eta ez bazan, sar dadila kalabazan eta atera dadila Plaentxiko plazan.

LAGUNAK MAITAKOR

A MAILA

3.saria

LAIA ALUSTIZA
RODRIGUEZ

Bazen behin Marraz izeneko karakol bat. Oso maitakorra zen.

Marraz Soraluze izeneko herri bateko maskota zen. Herrira heldu eta lagun pila bat egin zituen.

Herriko jaiak iristear zeuden eta denak haserretu ziren beraien artean. Aste bat falta zen herriko jaiak izateko eta oraindik haserre jarraitzen zuten.

Marraz oso triste zegoen herriko jaiak oso garrantzitsuak zirelako berarentzat. Baina Marraz oso magikoa zen bihotz handia zuelako eta magia eginez denak adiskidetzea lortu zuen.

Euskal Herriko jaiak heldu ziren eta den-denak poz-pozik ospatu zituzten jaiak.

Eta hala bazan edo ez bazan, sar dadila kalabazan eta atera dadila Soraluzeko plazan.